

MARKETIN GRADUA

2021-2022 ikasturtea

MARKETINAREN KUTSUA METABERSOAN. EBOLUZIOA ETA KASU APLIKATUAK.

Egilea: Aixa Irazola Agorria

Zuzendaria: Amaia Bañales Mallo

Bilbon, 2022ko ekainaren 24an



AURKIBIDEA

1	Sarrera	5
1.1	Aztergaia eta aukeratze arrazoiak.....	5
1.2	Lanaren helburuak.....	7
1.3	Egitura eta Metodologia.....	7
2	Testuingurua.....	8
2.1	Produktu orientazioa duen marketinetik gizakiak imitatzen duten teknologien bidezko balio marketinera.....	8
2.1.1	Marketin 1.0: Produktu orientazioa	8
2.1.2	Marketin 2.0: Bezero orientazioa	9
2.1.3	Marketin 3.0: Gizaki orientazioa	10
2.1.4	Marketin 4.0: Tradizionaletik digitalera	10
2.1.5	Marketin 5.0: Gizakiak imitatzen dituzten teknologiak aplikatzea	11
3	Metabersoa	14
3.1	Metabersoaren sorrera	15
3.1.1	Bilakaera	15
3.1.2	Second Life	17
3.1.3	Metabersoaren definizioa	20
3.1.4	Metaberso motak.....	24
3.2	Marketinaren kutsua Metabersoan	27
3.2.1	Metabersoak marketin arloan eskaintzen dituen aukerak	28
4	Kasu Praktikoa: Metabersoan murgilduta dauden bi marken kasu praktikoa.....	33
4.1	Zara.....	33
4.2	Adidas.....	36
5	Etorkizunerako ikuspegia	38
6	Erreferentzia bibliografikoak.....	41
7	Eranskinak - Glosarioa	47

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Marketinaren bilakaeraren laburpen taula.	14
2. Taula: LD Kanbio-tasa	19

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: <i>Marketin 4.0 Iturria: Norberak egina</i>	11
2. Irudia: Marketin 5.0-aren ardatz nagusiak.....	13
3. Irudia: <i>Second Life-ren (2003) logoa</i>	17
4. Irudia: Metaverse technologies, principles, affordances and challenges	21
5. Irudia	22
6. Irudia: Metabersoak sailkatzen	25
7. Irudia: Lau Metaberso mota ezberdinak	26
8. Irudia: Instagram-eko Avatarra.	28
9. Irudia: Tonight Show-eko elkarrizketa.	32
10. Irudia: Ader Error x ZARA AZ collection.....	34
11. Irudia: Lime Glam Metacollection Spring-Summer 2022	35
12. Irudia: Lime Glam Metacollection Spring-Summer 2022	35
13. Irudia: Adidas-en Into the Metaverse bilduma komiki digital zein fisikoetan.....	37
14. Irudia: Adidas x BAYC.....	37

LABURPENA

Gaur egun, teknologia berriek gure gizartea eraldatu dute, kontsumitzaileen erosteko era ere aldaraziz, marketinaren bilakaera da honen adibide argia. Zehazki, Metabersoak komunikaziorako eta interakziorako leku bihurtu dira. Hauek enpresa askotan interes handia pizten ari dira, potentzial estrategiko handia dutelako. Murgiltze esperientzia deigarrien bidez kontsumitzailearen buruan sartzeko, balio erantsia emateko eta lehiakideetatik bereizteko eskaintzen dituzten aukeren ondorio da hori. Lan honek analisi teoriko baten bitartez, Metabersoan funtzionamendua eta zergatia ulertzea du helburu baita hauek ustiatzeko marketin aukerak bilatzea. Gainera, ikuspegi praktikotik, marka komertzialen presentziaren ustiapena aztertzen da.

Hitz gakoak: *Marketin, teknologia, aukerak, Metaberso, esperientziak, enpresa*

RESUMEN

Hoy en día, las nuevas tecnologías han cambiado nuestra sociedad, cambiando también la forma de comprar de los consumidores, ejemplo de esto es la evolución que ha sufrido el marketing. Concretamente, los Metaversos se han convertido en plataformas para la comunicación e interacción. Estos han generado gran interés en las empresas debido a su gran potencial estratégico. Esto se debe a las posibilidades que ofrecen, a través de experiencias de inmersión, de entrar en la mente del consumidor, aportar valor añadido y diferenciarse de la competencia. En este trabajo mediante un análisis teórico se pretende entender el funcionamiento y la creación de los Metaversos, además de encontrar las oportunidades de marketing para sacar provecho a estos. Desde una perspectiva práctica se observa el uso de la presencia de las marcas en el Metaverso.

Palabras Clave: *Marketing, tecnología, oportunidades, Metaverso, experiencias, empresa*

ABSTRACT

Nowadays, new technologies have changed our society, as well as consumers' consumption habits, as exemplified by the evolution of marketing. Specifically, the Metaverses have become platforms for communication and interaction. These have generated great interest in companies because of their great strategic potential. This is due to the opportunities they offer, through immersion experiences, to enter the consumer's mind, add value and differentiate themselves from the competition. In this work, through a theoretical analysis, the understanding of the functioning and the formation of the Metaverses as well as the marketing opportunities to benefit from them will try to be understood. From a practical perspective, the use of the presence of trademarks in the Metaverse is observed.

Keywords: *Marketing, technology, opportunities, Metaverse, experiences, company*

1 Sarrera

1.1 Aztergaia eta aukeratze arrazoiak

Inoiz ikusi gabeko abiaduran aldaketak izaten dituen mundu batean, produktu edo zerbitzu bat hautatzeko aukerak gero eta gehiago dira. Dinamika horretan, markentzat inoiz baino beharrezkoagoa da kontsumitzailearekin lotura emozionala lortzea.

Hau da, merkatuen globalizazioa, teknologiaren aurrerapen bizkorrak, eskaintzak eskaria gainditzea eta komunikazio zein komunikabideen saturazioa dela eta kontsumitzaileen ohiturek zein erosketa portaerek aldaketa nabarmenak jasan dituzte, kontsumitzaile informatu, formatu eta zorrotzagoak erakarriz. Inguruneko faktoreek eraginda, zehazki, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) bilakaerak eraginda, Interneteko plataforman oinarritutako aplikazio berriak agertu dira. Aplikazio horien artean, Social Media deiturikoak daude, pertsonen iritziak, pentsamenduak, sentimenduak, esperientziak eta ikuspuntu ezberdinak partekatzea helburu dutenak. Hauen artean, berrienak Metabersoak edo gizarte-mundu birtualak deiturikoak dira. Hauek, kontsumitzaileei mundu mailako merkaturako eta informaziorako sarbidea errazten dieten era guztietako gailuak ekarri dituzte, erabakitzeko zein eskari zorrotzagoak egiteko boterea emanaz. Honek marko lehiakorrean enpresei haien estrategia eta jokabideak aldatzeko beharra ekarri die.

Aurreko guztia aztertu ondoren, lan honetan marketin tradizionaleko zenbait ekintza, iraganean arrakastatsua zirenak, egun porrot egiteko joera dutela ikusiko da, marketinak jasan izan duen eboluzioa ikertuz eta Marketin 5.0-ra helduz. Halaber, gaur egun, kontsumitzaileengan zirrarak eta esperientziak sortzeko duen garrantzia nabarmenduko da. Marka esperientzia lortzeko, produktu esperientzia, erosketa esperientzia eta kontsumo esperientzia lantzearen beharra antzematen da, hauek lortzeko teknologiak, zein joera eta pentsamendu berriek enpresen eskura jartzen dituen aukerak aipatzen saiatuko da, zehazki haien Marketin Mix-eko 4P-etan egin dezaketen ekintzak identifikatuz.

Hau horrela izanda, esan daiteke, gizarteak eskura dituen teknologia berrien eragin handia duela, behintzat teknologia horiek ezartzeko garapen-maila egokia duten herrialdeetan. Hau antzemanez, egile askok bai Errealitate Birtuala^{*1} zein Errealitate Areagotua* aztertzen dute azkenengo teknologia gisa. Hauek sektore ezberdinetan duten garrantzia eta papera aztertuz, hala ere marketin arloa alde batera usteko joera dute, berdina gertatzen da are berritzaileagoa den Metaberso edo mundu birtual hauen inguruan, non gogoeta gutxi aurkitzen diren marketinaren esparruan gaur egun. Horregatik,

¹ Asteriskodun hitz guztien definizioak lanaren bukaeran dagoen glosarioan topa daitezke

ikerketa honetan goreneko aldian dagoen kontzeptu honek dituen ezaugarri, aukera zein mundu berri honen sorreraren arrazoiak eta abantailak eta desabantailak aztertuko dira. Era berean, lan honetan autore desberdinen ikuspuntu eta iritzi kritiko desberdinak aztertuko dira, norberaren ikuspuntua ere barneratzeko asmoz.

Metaberso bat ordenagailuz sortutako espazio birtual bat da, zeinek hiru dimentsioko aurkezpen bat eskaintzen duen. Erabiltzaileek, Avatar* deituriko beren irudikapen digitalen bidez, espazio horretan mugitzen dira, elkarrekintzak sortuz. Lana garatzen den heinean, Second Life (2003) bezalako Metaberso baten adibidea ikusiko da, non mota guztietako jarduera sozial eta ekonomikoak garatzen diren.

Hitz gutxitan, etorkizun hurbilean Metabersoek bilatzaileak ordezkatzeko dituzten moduari buruz hausnartzen ari dira adituak eta hori gertatzekotan, pertsonen Internetekin elkarreragiteko duten modua erabat aldatuko dela aipatzen dute. Aro teknologiko berri honetan, kontsumitzaileen lehentasun izateari eutsi nahi dioten markek kontuan hartu behar dute Interneteko plataformak haien eskura jartzen duen tresna berri horren erabilera. Nolanahi ere, erabilgarritasunari eta eraginkortasunari dagokionez eztabaida dago, baina marka askok Metabersoetan murgiltzen hasi dira, aurrerago, Zara, Inditex-eko nagusia, eta baita Adidasen kasuak aztertuko direlarik. Hauen hautaketa informazio eskuragarritasunaren eta gustuen menpe egon da, moda gustuko baitut eta nahiko albiste baititut ditut hauen inguruan.

Hala eta guztiz ere, mundu birtualek markentzako eskaintzen dituzten komunikazio-formula berriei buruzko ikerketa gutxi daude oraindik, agian paradigmaren berritasun mailagatik edota gizarte eraldaketa bat ekarriko luketelako. Ikerketa honen bitartez etorkizuneko lanentzako erreferentzia izatea espero da, pisuzko iturri fidagarri eta azterlan ugari ez egoteak erronka handia izan baita.

Gaiaren aukeraketa erabaki garrantzitsu bat izan zen. Hasieran, praktiketan nenbilen enpresaren inguruan edota neuromarketinaren inguruan lana egitea nuen buruan. Baina azkenean Metaberso berritzaile hauei erreparatzea erabaki dugu. Zehazki, ikuspuntu akademikotik marketina eraldatuko duela uste baikenuen, gainera asko garatu gabeko alor bat dela uste genuen. Berebat, azken boladan oihartzun handia izaten ari den gaia da eta behin albisteetan niretzat ezezagun ziren Metabersoengandako datuak ikusterakoan jakin-mina piztu zitzaidan. Horrela, interesgarria, berritzailea, arraro eta agian beldurgarria den gai honi buruz lana jorratzea erabaki dugu, marketinaren honetan duen kutsua antzemateko eta baita etorkizunerako paradigma honen ezagupenari esker balio erantsia lortzeko ere.

1.2 Lanaren helburuak

Aurreko atalean aipatu izan dena kontuan izanik esan daiteke azterlan honen helburu nagusiak honako hauek direla:

1. Metaberso kontzeptura hurbilketa egitea eta honen sorrera balioztatzea.
2. Metabersoek enpresei marketin esparruan zein aukera eskaintzen dizkioten antzematea

Helburu horiek lortzeko planteatutako azpi-helburuak honako puntu hauetan zehazten dira:

1. Azkeneko urteotan egondako aldaketen ostean marketinak izandako bilakaera ezagutzea.
2. Kontsumitzaileen joera berriak ulertzea.
3. Metabersoaren sorreraren zergatia konprenitzea.
4. Teknologia berriei buruzko ezagupen orokorra bereganatzea.
5. Metabersoaren osaera zehaztea.
6. Metaberso mota ezberdinen arteko aldea antzematea.
7. Metabersoek esperientziak sortzeko duten ahalmena definitzea.
8. Enpresek kontsumitzaileengan zirrarak sortarazteko haien marketin estrategian egin ditzaketen aldaketak adieraztea.
9. Marken jarduna jaso eta identifikatzea, dokumentatuz, eta kasu errealean bitartez mundu birtualen erabilgarritasuna agerian uztea.
10. Aukera bakoitzaren izaera nabarmendu, eta bakoitzaren izaera estrategikoa erakustea.

1.3 Egitura eta Metodologia

Lehenik eta behin, marko teorikoa zehazteko berrikuspen bibliografiko bat egin da datu-base zientifikoetatik, baita Google Akademikotik ere, egokia eta erabilgarria suerta zitekeen dokumentazioa lortu ahal izateko, zehazki Metaberso ezberdinen inguruko informazioa eskuratuz hasten da lana. Eranskinetan aurkitzen den glosario² sortuz, hau gaian murgiltzeko beharrezko lehen urratsa izan zen. Horrela, behin gaian murgildu, lanarekin argitu nahi den problematika edo arazoaren definizioa egin zen, ikerketa eta erreferentzia den informazioa bilatzeko. Hurrengo etapan, informazioa eta aurkitutako dokumentazioa antolatzen dira. Azkenik, ikerketarako eta problematikarako baliagarriak diren informazio iturriak hautatu eta lanaren garapenarekin hasteko.

Modu honetan ikerketaren sarrera egin ondoren, lan hau burutzeko lehen pausua, lanaren mugen zein helburuen ezarpena izan zen. Hauek eta metodologia adierazteko lehenengo puntua erabili delarik.

² Adierazi bezala, irakurketa errazteko asmoz testuan zehar glosarioan (lanaren bukaeran) definitutako kontzeptuak aipatzen diren lehen aldian * batekin identifikatuko dira

Bigarren eta hirugarren puntuetan lanaren alde teorikoa garatuko da, bigarren atalean azken boladan aurrerapen teknologikoak eta merkatuaren aldaketak direla eta marketinak produktu orientazioa izatetik gizakiak imitatzen dituzten teknologiaren bidezko balio marketinerainoko aldaketak aztertzen dira, hauek baitira kontsumitzaileen erosketa erabakietan eragin zuzena dutenak eta enpresek beren estrategiak aldatzea eragin dutenak. Hirugarren puntuan, Metabersoa testuinguruan kokatzeko erabili da, Paul Mooren (1995) teknologiaren eboluzioaren teorian oinarrituz Metabersoan sorrerara heldu arte. Bertan, azpiatal bat sortu da, Second Life (2003) izenekoa, Metabersoan arbasoak ezagutzeko. Gainera, Metabersoak zer diren azaltzeko (hauen ezaugarriak azalduz) eta zenbait adituk aipatutako Metaberso mota ezberdinak aipatzeko erabili da ere. Bestetik, marketinak Metabersoan duen kutsua ustiatzen eta argudiatzen da, Marketin Mix-eko 4P-etan teknologia hauek izan ditzaketen aukerak nabarmenduz. Hurrengo atalean, moda sektoreko bi enpresen Metabersorako sarrera aurkezten da, hauek sortutako bilduma grafikoei erreparatuz: Zara eta Adidas. Geroago, lana gauzatu eta luzaro landu ostean, hausnarketa egiten da. Alde batetik hasieran definitutako helburuen betetze mailari buruz gogoeta egiteko eta baita ikasitakoaren ondorioak aurkezteko. Honen ostean erabilitako erreferentzia bibliografiko guztiak aurki genitzake, baita aurretik aipatutako glosarioa.

2 Testuingurua

2.1 **Produktu orientazioa duen marketinetik gizakiak imitatzen duten teknologien bidezko balio marketinera**

Egungo marketina (balioan oinarritutakoa) ingurune berrira eta bezeroen beharretara (aldakorrak baitira) egokitzearen emaitza da (Kotler et al., 2021). Definizio horretara heltzeko, marketinaren kontzeptuak hainbat eraldaketa izan ditu, hainbat ikuspegi ezberdin hartuz (Suárez Cousillas, 2018):

2.1.1 Marketin 1.0: Produktu orientazioa

Marketin 1.0 delakoa, Estatu Batuetan 1950. hamarkadan masako ekoizpena bere goreneko aldiari zegoenean sortzen da, zehazki, industria iraultzaren ostean. Momentu honetan kontsumoa masiboa zen, banakoen ezaugarriak kontuan hartu barik merkatuak eskaintzen zuena kontsumitu besterik ez zen egiten, produktuak denei modu berean salduz. Halaber, enpresek produktuen garapenean inbertitu egiten zuten soilik. Philip Kotlerren (2012) aburuz, helburu nagusia estandarizazioa zen, eskala ekonomiak aplikatu ahal izateko eta kostuen beherapenekin produktuak prezio baxuagoetan saltzeko, erosle kopuru handiago bateri helduz, kontsumismoaren kultura sortzearekin batera.

Fase honetan norantza bakarreko komunikazioa eta web orrialdeen hasiera ematen da, non enpresek bere produktuak Web 1.0-aren bitartez komunikatzen zituzten, gero kontsumitzaileek produktu hauen inguruan irakurri ahal izateko. Garai honetan, kontsumitzaileek ez zuten zer esanik, enpresek

informazioaren boterea baitzuten, zehazki, merkataritza edukia masa bidezko kanalen bitartez komunikatzen zuten. Marketin 1.0-a, produktuetara zuzendutako marketina bezala ere ezagutu daiteke, zeinen funtzionamendua Marketin Mix-eko oinarrizko 4P-etan³ laburbildu zitekeen, produktua, prezioa, banaketa eta komunikazioa (Mccarthy, 1960; Navío-Navarro, 2020).

2.1.2 Marketin 2.0: Bezero orientazioa

Interneten errealitate berriak zaharkitu egin zuen marketina egiteko modu hori eta urteak aurrera zihoazen heinean, Marketin 2.0 delakoa sortu zen. Produkturako orientazioa alde batera utziz eta kontsumitzailearen garrantzia aitortuz. Bezeroenganako orientazioa duen marketina bezala ere ezaguna den honetan, jadanik helburua ez zen produktuaren salmenta, baizik eta bezeroetan zirrara sortaraztea (Suárez-Cousillas, 2018). Halaber, produktu orokorrez betetako merkatu batean kontsumitzaileen asetasuna eskuratzea eta hori lortzeko, segmentazioa, arrakastarako bidea zela antzeman zen. Helburu merkatuari buruz ikasi behar zen, honetan era egokian posizionatzeko eta bakoitzari egokitzen zitzaion produktua (ondasun zein zerbitzu) eskaintzeko. Zehazki, Marketin 2.0-ak bezeroak merkatuko eskaintzei arreta jartzen dizkiola eta baita erabakiak hartzen dituela aitortzen zuten, ondorioz, enpresek bezeroak mantentzea eta harremanak sortzea zein mantentzea bilatzen zuten (Maqueira eta Bruque, 2009).

Kotler et al. (2021)-en arabera Marketin 2.0-aren garaia segmentazio ulertzean eta posizionamendua garatzean oinarritzen da. Berebat, Tara Suárez-Cousillas (2018)-en arabera marka eta kontsumitzailearen arteko elkarrizketa Web 2.0-ari esker martxan hasten da, non hedabide digitalei eta sozialei esker erabiltzaileen esperientzien berrelikadura eta edukien sorkuntza ahalbidetzen den.

Web 2.0-a 2005. urtean Tim O'Reilly-k definitutako kontzeptu berritzaileari deritzo, zeinak erabiltzaileen elkarreragina eta harremana oinarri duen. Web 2.0-a aplikazio tradizioaletatik, webgunearen bidez funtzionatzen duten eta azken erabiltzaileei bideraturik dauden aplikazioetarainoko bilakaerari deritzo (Van Der Henst, 2005). Bidirekzionala den komunikazioa baimentzen duen eredua da, non harremanak estutzen diren ondorioz, Marketin 2.0-a aurrera eramateko bikaina da. Informazio aplikazio hauei esker kontsumitzaileak informazioa bere eskura du, produktu eta zerbitzuen prezio hoberena aurki dezake edota bitartekariak saihestu. Edonola, kontsumitzaile aktibo deritzoguna sortu du, edukia, informazioa, iritziak eta abar partekatzen dituen (Suárez-Cousillas, 2018).

³ Jerome Mccarthy, 1960ko hamarkadan gutxi gorabehera, Marketinaren 4P deiturikoak proposatu eta ezarri zituena izateagatik ezaguna da

2.1.3 Marketin 3.0: Gizaki orientazioa

Sare sozialen garapenarekin bat gizakiaren beharrak ere eraldatu egin dira eta 2000ko hamarkadaren amaierako mundu krisiarekin bat, marketinaren bilakaera sustatu zen. Kotler et al. (2021)-en esanetan, ezegonkortasun handiko garaian marketin 3.0 edo gizaki orientazioa duen marketina bezala ere ezaguna dena sortzen da. Izan ere, urte hauetan finantza industrian iskanbila ugari sortu ziren eta horiek kontsumitzaileen konfiantza gainbeheratzea sortu zuten. Ondorioz, gizarteak enpresei eragin sozial positiboa zuten produktu zein zerbitzu edota kultura sortzea inposatu zien, hau, marketin joera berri honen abiapuntua bilakatu.

Eta honetan, marketinean aribide etikoak eta leialak barneratu ziren. Jadanik kontsumitzaileen beharrak asetzeaz gain, markek aparteko esfortzuak egiten zituzten kontsumitzaileak haien marka balioekin identifikaturik sentitu zitezten. Kotler et al. (2021)-en aburuz, marketin 3.0-aren ustean gizakiak bere osotasunean asetu behar dira, esplizitu zein inplizitu dauden nahiak zein desirak ustiatuz. Horregatik emozioen marketin eta espiritualtasun marketina bateratu behar dira. Berdinki, enpresek ez dute arrakasta izango nahiz eta produktu eta komunikazio hoberenak eduki, haien baloreengatik beste enpresetatik desberdintzea lortu behar dute, hauek enpresa osoan barneratuta egonik, baloreak enpresa barnetik kanpora hedatu behar baitira (Kotler et al., 2021).

2.1.4 Marketin 4.0: Tradizionaletik digitalera

Argi dago digitalizazioaren, Internet mugikorraren, sare sozialen eta merkataritza elektronikoaren gorakadak bezeroaren erorketa prozesua aldatu duela eta marketineko adituek aldaketa horretara egokitu behar izan direla, produktuak eta zerbitzuak modu omnikanal baten bidez komunikaraziz eta opatuz. Esan daiteke, Marketin 4.0-a eta eremu digitala eskutik doazela eta sarearekiko konexio etengabeak, eguneroko lan-gaitasunaren hazkundeak, zein agenteen arteko komunikazio zuzenek honen hedapena sustatzen dutela (Kotler et al., 2017).

Tara Suárez-Cousillas (2018)-en arabera, gaur egun konpetentzia globala denez, 360º-ko komunikazio bat bilatu behar dute enpresek, komunikazio integrala, aipatutako Web 2.0-ak eskaintzen duena baino gehiago. Era berean, online zein offline kanalak eta sare sozialak oso garrantzitsuak direla adierazten du. Arrakastaren oinarria harremanak garatzea denez fidelizazioa eskuratzea da helburu, hortaz Harreman Marketina aurrera eramatea garrantzitsua da. Aurreko garaiekin alderatuz, oraingoan plataforma digitalak direla eta bezeroak iritziak partekatzeko eta zer esanak plazaratzeko inoiz baino aukera eta gune gehiago dituzte. Hau horrela, enpresek merkatuaren joerak, bezeroen bilakaera, desio berriak eta abar antzematen saiatu behar dira, horretarako Big Data* erreminta egokia da.

Laburturik, Kotler et al. (2017)-en esanetan marketina 4.0-aren helburua bezeroaren konfiantza eta leialtasuna lortzea da, marketin tradizionala eta marketin digitalaren online zatiarekin elkarreraginari esker. Hitz gutxitan, ezagunak diren Marketin Mix-eko 4P-ak kudeatzeko teknika, teknologia eta joera berriak erabili.



1. Irudia: Marketin 4.0.
Iturria: Norberak egina.

2.1.5 Marketin 5.0: Gizakiak imitatzen dituzten teknologiak aplikatzea

Azken boladan, belaunaldi gazteagoen kezkek eta interes nagusiek bi lerro jarraitu izan dute. Lehenengoa, gizarteari aldaketa positiboak ekartzea eta bizi-kalitatea hobetzea. Bigarrena, teknologiaren aurrerapena bultzatzea. Ondorioz, marketin adituek teknologia joera berriak jarraitu behar dituzte, giza bizitzak hobetzeko helburuarekin (González-Ferriz, 2021). Gainera, sare sozialetan edota bilatzaileetan marketinak izan duen gorakadak baita merkataritza elektronikoaren (E-Commerce) hazkunde ikaragarriak ere, adituen digitalizatorako jarrera hobetu izan dute. Hala bada ere, marketin digitala, ohiko ekintzak mundu teknologikoetara garraiatzea baino ez da, bezeroak kanal digitaletan kokatuz. Kotler et al. (2021)-en iritziz Marketin 5.0-a edo Gizakiak imitatzen dituzten teknologiak aplikatzen duen marketina, Marketin 3.0-aren (giza orientazioa) eta Marketin 4.0-aren (teknologia-gaitzailea) nolabaiteko kohesioa da.

Marketina 5.0-a definizioz, bezeroaren ibilbidean zehar balioa sortu, komunikatu, entregatu eta hobetzeko gizakiak imitatzen dituzten teknologien aplikazioan datza, balio eta erantzun pertsonalizatua lortzeko. Horretarako, lehenik eta behin, teknologiek bezeroaren ibilbidea mapatzen dute, balioa gehitu ditzaketen arloak antzemateko eta baita giza marketinen jarduera erraztu edota hobetzeko. Marketin 5.0-a beraz, makinak eta pertsonak non egokitu daitezkeen aukeratzean datza betiere bezeroari ahalik eta balio handiena eskainiz (Kotler et al., 2021).

Joera berri honen aspektu kritikoenetako bat marketin-adituen gaitasunak imitatzen dituen teknologien erabilpena izan daiteke. Hala nola, Inteligentzia Artifiziala* (Artificial Intelligence –AI-), Programazio Neurolinguistikoa* (Neuro-linguistic programming –NLP-), Sentsoreak, Robotika, Errealitate Areagotua (Augmented Reality –AR-), Errealitate Birtuala (Virtual Reality –VR-), Gauzen

Internet* (Internet of things –IoT-) edota Blockchain* edo bloke-kateen teknologia . Hauen nolabaiteko konbinazioa da 5.0 marketina gaitzen duena (Kotler et al., 2021).

AI-a giza gaitasun kognitiboak erreplikatzeko garatu da, bereziki, bezeroen egiturarik gabeko datuetatik ikasi ahal izateko, marketineko adituentzako onura handikoa izan daitekeena. Bestetik, gizabanakoaren aurreko erosketen jazarpena eginik, segmentazio dinamikoa eta bezeroen profila sortzeko baliagarria da (Otegui Castillo, 2017). AI-ak erosketa-eredu erabilgarriak ezagutarazten lagun dezake baita aurretik aipatutako bezero profilak kontuan hartu produktu eta eduki egokiak gomendatzen ere. Bestetik, gaur egun, VR-ak eta AR-ak enpresa askotan interes handia pizten dute, potentzial estrategiko handia baitute (Moreno et al., 2017).

Errealitate Birtuala mundu artifizial bat sortzeko erabiltzen den sistema informatiko bat da, erabiltzailearen irudipena eta nabigatzeko eta bertan objektuak manipulatzeko trebetasuna lantzen dituen (Manetta eta Blade, 1995). Gizabanakoek teknologia eta sistema informatikoen bitartez errealitatearekiko paraleloa den mundu baten murgiltzeko aukera eskaintzen du VR-ak. Honekin batera, irudimena garatzen eta elkarrekintza sustatzen duen teknologia da, erabiltzaileetan esperientzia zein emozio berri eta errepikaezinak sortaraziz. Esan daiteke, marketin tradizionalak bideora edo irudi estatikoetara jotzen duela; aldiz, VR-ak unibertso berri bati arrera emango dio, bezeroentzako balio gehigarria eskainiz eta produktua erosi aurretiko, erosketa tokiko, edota erosi osteko esperientzia gutiz eraldatuz (Otegui Castillo, 2017).

Errealitate Areagotua (AR), mundu errealearen ingurune fisiko baten zuzeneko edo zeharkako ikuspegia definitzeko erabiltzen den terminoa da, eta haren elementuak elementu birtualekin konbinatzen dira denbora errealeko Errealitate Misto* bat sortzeko (Barfield eta Caudell, 2001). Beraz, mundu errealearen eta aipatutako mundu artifizialen arteko kohesioak sortzen dituen teknologia bezala definitu daiteke. Hau da, nolabaiteko Errealitate Misto bat sortzeko gaitasuna du, zeinetan gailu ezberdinen bitartez irudi, testu edota 3D irudikatutako objektuak mundu errealean txertatzen diren. Horregatik, oro har, marketineko 4P-etako komunikazio adarrerako erabilgarria dela uste da (Mystakidis, 2022). Errealitate Areagotuari esker emaitzak denbora errealean neurtzea eta baita bezeroan komunikazioarekiko harridura sortaraziz izandako esperientzia oroitzea ere sustatzen du (Fundación Telefónica, 2011; Fombona Cadavieco et al., 2012).

Hala ere, bai Errealitate Birtuala zein Errealitate Areagotua oraindik garapen bidean dauden teknologiak dira, zenbait eremutan ustiatzen jarraitu behar direnik, hots, marketin arloan. Beraz, iraganean beste teknologiekin egin duen bezala; prentsa, irrati, telebista, ordenagailu pertsonal edo Internet bezalakoekin, egun marketinak garapenak izaten jarrai dezake (Otegui Castillo, 2017). Hau

horrela balitz, marketin-adituen artean kontraesanak ager daitezke, marketina definitzeko ikuspuntu desberdinak daudelako. Otegui Castilloren (2017) aburuz, marketinaren bilakaera digitalizazioaren eta teknologia berrien ondorio da. Eta Kotler et al. (2021)-ek ordea marketina teknologia eta erreminta berriekiko independentea izan beharko dela diote, teknologiak izanik estrategien jarraitzaile.

Berez, Marketin 5.0-ak bost ardatz dituela esan genezake (2. Irudia). Zehazki enpresa batek Marketin 5.0-a era egokian aurrera eramateko bi oinarrizko diziplina menderatu behar dituela esan ohi da. Alde batetik Agile Marketina, merkatuak jasaten dituen aldaketa konstanteen aurrean, produktuak edo marketin kanpainak azkar diseinatzeko, garatzeko eta baliozkotzeko funtzio anitzeko ekipoen erabilpenetan oinarritzen dena. Eta bestetik, marketin erabakiak errazago eta ziurrago hartzeko asmoz, barne zein kanpo datuak bilduz eta analizatuz datu ekosistema bat sortzen duen Data Marketina.



*2. Irudia: Marketin 5.0-aren ardatz nagusiak.
Iturria: Norberak egina. (Kotler et al., 2021)-en oinarritua.*

Hauek ustiatuz beste hiru aplikazioa lantzeko gai izango dira enpresak. Lehenengoa, Iragarpen Marketina, aipatutako datuetan eta joeretan oinarrituz, merkatuan marketin ekintzen eragina alde aurretik ezagutzeko ahalmena eskaintzen diena. Testuinguru Marketina kontsumitzaileen profila identifikatzean eta sortzean datza, horrela aurretik definitutako sentsoreen bitartez marketin-adituek, denbora errealean, bezeroekin zuzeneko marketina gara dezakete. Azkenik, Marketin Areagotua dago, marketinerako azaldutako teknologia digitalen erabilpenean oinarritzen dena eta bezeroekiko marketin-adituen eraginkortasuna hobetzen laguntzen duena (Kotler et al., 2021).

Aurreko guztiaren ondorioz baieztatu dezakegu marketinak eboluzio handi izan duela produktu marketinetik hasiz gaur egungo gizakiak imitatzen dituzten teknologien bidezko balio marketinera (1. Taula). Berez, Marketin 5.0-ra helduz, eta erdigunean dituen teknologia berritzaileen artean, gaur egun garrantzi berezia hartzen du Metabersoa.

1. Taula: Marketinaren bilakaeraren laburpen taula

PRODUKTU MARKETINETIK GIZAKIAK IMITATZEN DITUZTEN TEKNOLOGIEN BIDEZKO BALIO MARKETINERA

	MARKETIN 1.0	MARKETIN 2.0	MARKETIN 3.0	MARKETIN 4.0	MARKETIN 5.0
ERDIGUNEA	Produktua	Kontsumitzailea	Zirrarak eta baloreak	Aurrera hartzea eta iragartzea	Teknologia berritzaileen bitartez bezeroan zirrarak eta esperientziak sortaraztea
HELBURUA	Saltzea	Bezeroa asetu eta atxikitu	Mundu hobe bat eraikitzea	Joerak antzematea, leialtasuna sortzea	Esperientziak saltzea
OINARRIA	Industria Iraultza	Informazioaren teknologiak	Teknologiaren garapena	Big Data	Belaunaldien interes nagusiak: Gizartearen aldeko joera eta Digitalizazioa/Gizakiak imitatzen dituzten teknologiak
BEZEROEKIKO HARREMANA	Bakarkako salmenta	Harreman pertsonalizatuak	Gizartearekin elkareragina	Bezeroakiko konexio etengabea. Bidirekzionala	Teknologiaren bitartez harreman multisentsorialak
MARKETIN EKINTZAK	Produktuaren ezaugarriak adierazteko	Produktu zein markaren posizionamendua lortzeko	Balioekiko posizionamendua lortzeko	On- zein Off-line kanalak erabili bezeroarekin konektatzeko	Teknologia sistemen aukera anitzak erabili esperientziak sortzeko

Iturria. Norberak egina. (Suárez-Cousillas, 2018)-en oinarritua.

3 Metabersoa

IKT-n bilakaerarekin batera, Interneteko plataforman oinarritutako aplikazioak, besteak beste «Social Media» deiturikoak aurkitzen ditugu; horien helburua erabiltzaileek iritziak, pentsamenduak, sentimenduak, esperientziak eta perspektibak partekatu ditzaten baimentzea da. «Social Media» aplikazioen artean, berrienak ezaugarri bereziak dituzten Metabersoa dira. Hauek, enpresei markaren esperientzia sortzeko aukera mugagabeak dituen 3D-ko mundu birtual baterantz zabaltzeko plataforma bikainak dira (García Pérez eta Robles-Estrada, 2014).

Metabersoen garapenak merkatuaren eskura jarri ditu datuak biltzeko, erazteko eta tratatzeko elementu berriak. Teknologia aplikatu hauek beldugarriak izan daitezke marketinako adituentzako, baina azken aldia ikusi da hauek lagungarriak, baliagarriak eta eskuragarriak bihurtu daitezkeela (Kotler et al., 2021).

3.1 **Metabersoaren sorrera**

3.1.1 Bilakaera

Metabersoak marketinari eskaintzen dizkion aukerak ulertu eta etorkizuneko arazo konplexuei konponbide berritzaileak bilatzeko, baita Metabersoaren aplikazioa ulertzeko eta praktikan jartzeko hedabide birtualen bilakaera hobeto ulertzea funtsezkoa da (Mystakidis, 2022). Mundu birtual independenteen multzo batetik 3D mundu birtualen sare integratu baterainoko bilakaera lau ezaugarrien aurrerabidean oinarritzen da: murgiltze errealismoa, sarbidea eta identitatea, elkarreragingarritasuna eta eskalagarritasuna. Hauek gaur egun Metabersoaren oinarri dira (Dionisio et al., 2013).

Hala bada ere, autore hauek teknologiaren bilakaera bost faseetan sailkatzen dute: 1. Fasea: Testuetan oinarritutako mundu birtualak, 2. Fasea: Interfaze grafikoak* eta aplikazio komertzialak, 3. Fasea: Erabiltzaileak sortutako edukia, 3D grafikoak, sozializazio irekia, audio integratua, 4. Fasea: Mundu birtualeko erabiltzaileen oinarri komertzialak nabarmen zabaltzea, edukiak sortzeko tresna hobetuak, presentzia instituzional handiagoa, ekonomia birtual sendoa garatzea, zehaztasun grafikoan hobekuntzak, 5. Fasea: Garapen deszentralizatu irekia, berez, Metabersoaren arbaso dei dezakeguna.

a) 1 fasea: Testuetan oinarritutako mundu birtualak

Testuetan oinarritutako teknologiaren fasea, 1970eko hamarkadaren amaieran izan zuen abiapuntua. Fase honek bi aldaera izan ohi zuten. Alde batetik, MUD-ak edo erabiltzaile anitzeko dimentsioak errealitate fantastikoen sorkuntzan inplikatzeko direnak, *Lord of the Rings* (2007) edo *Dungeons and Dragons* (1974) rol jokoak bezala. Bestetik, MUSH-ak, edo erabiltzaile anitzeko eldarnio partekatutako hain definituak ez ziren esplorazio-espazioez osatua, non hezitzaileak esperimendatzen ari ziren, elkar-sorkuntza ahalbidetzeko (Dionisio et al., 2013). Laburtuz, Text-based Network deritzen mundu birtualak interneten denbora errealean deskribatutako ingurune errealek barne hartzen zituen, non jendeak elkar eragiteko aginduak (komandoak) mekanizatuz edo ordenagailuko teklatuatan mezuak mekanizatuz "hitz" egiten zuten. Testu-modua, ordenagailuko monitoreak izan dezakeen era batera deritzo, non pantailaren edukia barnean adierazten den, banakako pixelen ordez testu-karaktereen terminoetan. Testu gisako aplikazioak erabiltzailearekin komando lerroen (command-line interface – CLI-) eta erabiltzailearen testu-interfazeen (Text-based user interface –TUI-) bidez komunikatzen dira (Moore, 1995).

b) 2 fasea: Interfaze grafikoa eta aplikazio komertzialen bidezko mundu birtualak

Lucasfilm-ek (1971ean sortutako Lucasfilm Limited filma ekoiztetxea) William Gibsonen (zientzia fikziozko cyberpunkaren* aita) Neuromancer argitalpenean inspiratua, 1986an Habitat Commodore 64 eta 1989an Fujitsu plataformak aurkeztu zituenean ematen da fase hau (Fgasking, 2021). Habitat, mundu birtual eta teknologikoaren lehen aplikazio komertziala izan zen, baita interfaze grafiko bat txertatzen lehena. Hasierako interfaze grafiko hau 2D-3Dn zegoen, hala ere, online ingurunean joko honek abiadura motelean funtzionatzen zuten marrazki bizidun kaskarren erabilera egiten zuen. Horrez gain, Avatar terminoa erabili izan zuen lehen mundu birtuala bezala ere ezaguna da, jokoan zeuden egoiliarak definitzeko (Dionisio et al., 2013).

c) 3 fasea: Erabiltzaileak edukia sortzeko aukeradun mundu birtualak

Esan daiteke 1990eko hamarkadaren erdialdean hurrengo aurrerapausoa eman zela, informatikan aurrerapenak eta baita beste hainbat arlo nagusitan aurrerapenak izan zituen fase honekin. Erabiltzaileak sortutako edukia, 3D-ko grafikoak, sozializazio irekia edota entzumen integratua barneratze garaia. Zehazki 1994. urtean, Web World-a, 2.5D mundua sortu zen. Lehen aldiz, erabiltzaileei eraikuntzarako gaitasun mugagabea eskainiz, erabiltzaileek haien gustura egokitzen zitzaieen mundua eraiki zezaketen. Ondoren, 1995ean, [World, Inc](#) hiru dimentsioetako grafikoek osatutako lehen mundu birtual askea sortu zuen, honek, lehen fasean aipatutako testuetan oinarritutako jokoen (MUSH) generoa eraberritu zuen, erabiltzaileak 3D espazioen bitartez harremanetan jartzea ahalbidetuz. Honela, mundu birtualak joko-eredu batetik giza portaera konplexuen hedapena eta adierazpena lortzeko kokapen edo ordezkio kultura bat eskainiz mundu birtualen jardueren irismena edota aukerak eraberritzen dira. Urte berean (1995), Neil Stephensonen 1992ko Snow Crash eleberrian adierazitako ikuspegiaren oinarritutako [Activeworlds](#) mundu birtuala sortu zen, erabiltzaileek 3D-ko ingurune birtual bat norberari egokitzeko eta kodetzeko. Azkenik, 1996an, OnLive! Traveler sortzen zen, zeina ahots bidezko "chat" bat eta honi dagokion Avatarren ezpainen mugimendurako teknologia barneratzen zuen 3D-ko lehen mundu birtuala bihurtu zen (Dionisio et al., 2013).

d) 4 fasea: Erakundetun mundu birtual komertzialak

Fase honi, mundu birtual komertzialen garaia ere deritzo, non mundu fisikoko erakunde nagusien parte hartzea areagotu zen, baita edukiak sortzeko tresna hobetuak, ekonomia birtual sendoa edota zehaztasun grafikoan* (Fotogramen xehetasunean, bereizmenean eta abiaduran) hobekuntzak eginez enpresak, unibertsitateak edota eskolak edo dendak barneratzen ziren mundu birtualetan. Edonola ere, Avatar Reality 's Blue Mars kaleratu zen. Hau 3Dko objektuak sortzeko aukera ematen zuen

(Dionisio et al., 2013). Gutxi balitz, mundu birtualetan erreialismo grafikoaren kalitate handiago bat txertatzeko ahaleginik handiena izan zen, hala ere, esfortzuak sistemaren beharrak modu adierazgarrian igo zituen, nahiz eta helburu den erabiltzaileentzat errentagarria eta eraginkorra ez izan.

e) 5 fasea: Garapen deszentralizatuko mundu birtualak

Second Life (3. Irudia) eta Blue Mars bosgarren fasearen sarrera dira. Fase hau, 2007an hasi eta jarraitzen duena, 3D birtual munduen garapenerako ekarpen irekiak barne hartzen ditu, nolabait Metabersoaren arbasoak eratuz. Hala ere Second Life-k garrantzi berezia hartzen du Metabersoak ulertzerakoan.



*3. Irudia: Second Life-ren (2003) logoa.
Iturria: Norberak egina.*

3.1.2 Second Life

Second Life edo SL (2003) bezala ezaguna dena, erabiltzaile anitzeko ingurune birtuala (Multi User Virtual Environment, MUVE*) eta jokalaririk anitzentzako online rol-joko (Massively Multiplayer Online Role-Playing Games, MMORPG*) bat da. Philip Rosedale-ek, unibertso berezi hau sortu eta garatu duen Linden Lab enpresaren sortzaileak, aipatutako Neal Stephenson-ek Snow Crash (1992) eleberrian deskribatutako Metabersoa bere proiektuan izan zuen eragina onartzen du (Stephenson, 1992, apud, Albarrán Diego, 2008). 2006ko azaroaren 3rako milioi bat berrehun mila erabiltzaile baino gehiago lortu zituen (García Pérez eta Robles-Estrada, 2014; Grané eta Muras, 2006) eta [gaur egun ere erabilgarri dago](#).

SL-rako sarbidea doakoa da eta honen erabilerarako kontu bat sortzea besterik ez dago, izen, abizen eta helbide elektronikoa bat erabiliz. Joko honen gakoa Avarretan dago, hau norberaren itxurari erabat leiala edo erabat desberdina izan daiteke, gorputzaren kolore, forma, jantzi, ile eta abar aldatuz, hau da skin*-a osatuz (Delgado de Smith, 2022).

SL-rekiko lehen kontaktua ingurune kontrolatu batean gertatzen da, non Avatarraren gaitasunak erabiltzen ikasten den. Avatarrak ez du jan, edan edo lo egin beharrik, hala ere egin dezake. Oinarrizko funtzionamendua, *The Sims Video Games* (2000) edo beste pertsonaien bidezko edozein jolas-inguruneraren aldean, ez da oso desberdina. Ohikoa den bezala, jolasean mugimendua sagua eta teklak konbinatuz kontrolatzen da baina SL-an hegan ere egin daiteke, leku ezberdinetatik Avatarrak mugiarazteko. Izan ere, nahiko ohikoa da zeruan etxeekin topo egitea (Rymaszewski eta al., 2007; García Pérez eta Robles-Estrada, 2014).

Halaber, beste erabiltzaileek sortutako objektu ugari aurkitu daitezke bertan, baita norberak bereak egin. Gainerako erabiltzaileekiko interakzioa, funtsean, "chat" baten bidez egiten da, elkarrizketa pribatuak ere baimentzen dituen, baina ahoz bitartez komunikatzeko aukera ere badago. Kalitate handiagoko errealitatea sortzeko, Avatarrak aurrez zehaztutako mugimenduak ditu, eta sentimendu edo jarrera jakin batzuk aktibatu eta erakuts ditzake (García Pérez et al., 2014).

SL-en arrakastaren zergatia; plataforma berean hainbat komunikazio-modu ahalbidetzen dituela (bideoa, audioa, "chat"-a, 3D-ko grafikoak, animazioak...) edota gizabanakoak posizionatzeko aurretik ikusi ez den era duela zein erabiltzailea edukiaren zati gisa integratzeko ahalmena duela edo ekonomia birtuala duela izan daitezke. Izan ere, beren txanpon propioa du, Linden dolarrak (LD). Erabiltzaileek, Avatarraren bidez, lan egin, negozio bat kudeatu edo zerbitzuak eskaini ditzakete, eta horien bidez ordainketa bat jaso (García Pérez et al., 2014). Berebat, Grané eta Muras-en arabera (2006) LD-ak lortzeko bi modu nagusi daude. Alde batetik, erabiltzaile *premium* izanik (hilero gutxi gorabehera 6\$-eko ordainketa bat eginez) astero 300 LD jasotzea. Bestetik, erabiltzaileak eragiketak dolarretan gauza ditzake, gero truke merkatuan Linden dolarretara aldatzen direnak. Kanbio-tasa, 2022. urtean gutxi gorabehera egonkorra da CurrencyRate.today webgunearen arabera (2. Taula). 2006. urtean Second Life-ean egunero erabiltzaileek egindako transakzioetan milioi erdi dolar amerikar baino gehiago mugitzen zituen eta hilero ekonomia birtuala % 15 hazten zen (Linden Lab, 2006, apud, Grané eta Muras, 2006).

2. Taula: LD Kanbio-tasa

LD	USD	EUR
1 LD	0.0031\$	0.0029€
USD	EUR	LD
1\$	0.9318€	320 LD

Iturria: Norberak egina. (<https://currencyrate.today/>)-en oinarritua.

Garai horretan Linden Labs-en zuzendaria zenaren hitzetan 2015. urtean plataforman 900.000 erabiltzaile bizi ziren, 500 milioi dolarreko barne produktu gordina sortuz. Halaber, erabiltzaileek 2014. urtean 60 milioi dolarreko etekinak ere izan zituztela aipatzen da, garai hartan SL-ak izan zuen arrakastaren adibide izanik (Abad Liñán, 2015).

E-Business tresna gisa SL erabiliz, erabiltzailea produktuekin ez ezik, ingurune fisiko eta espazialarekin elkarreragitea lor daiteke. Era berean, marketin ikuspuntuari erreparatuz, aukera anitz hauteman daitezke. SL-ak erabiltzaileek beren artean denbora errealean komunikatzeko duen gaitasun handiari esker, enpresek mundu errealean edota birtualean hauen beharretara zuzenean egokitzen diren adituak ezarri ditzake. Plataforma honen arrakastaz baliatuz, markek produktuaren balioa hobetzen lagunduko duten estrategiak sor ditzakete (García Pérez et al., 2014).

Hau esanda, aipatu beharra dago Second Life-a ez duela arrakasta handirik gaur egun. Izan ere, enpresa eta erabiltzaile batzuek plataforma haientzat ez dela antzeman dute (SL-an toki bat diseinatzeko eta erosteko US\$16.000 inguru behar baitira). Horrekin batera, teknologia ez da uler erraza, eta ordenagailu batzuek ezin dute honen pisua jasan. Eraginez, Second Life-k grafikoaren kalitateari buruzko bere anbizioak baretu behar izan zituen mundu osoko abiadura ezberdineko banda zabalen bitartez bere irisgarritasuna errazteko, webguneko marrazkien itxura eta sentsazioari buruzko kexak sorraraziz (Hansen, 2009).

Kexa hauek izan arren, mundu birtualekiko eta digitalizazioa eta teknologia berriek ekar ditzaketen elkarreragiteko moduengatik interesa mantendu egin da, gaur egun bogan dagoen Metabersora helduz.

3.1.3 Metabersoaren definizioa


Digitalizazioa eta teknologia berriak gizartearen egunerokotasunaren parte dira, gizakiaren izaera, beharrak, nahia zein elkarreragiteko edo komunikatzeko erak eraldatuz. Gaur egun, herritar globala Web 2.0-tik sortutako ingurune birtualekin etengabeko elkarreraginean bizi da, non parte-hartzea eta lankidetzak ezagutza kolektiboa sortzeko oinarria diren. Oro har esan daiteke, teknologiaren berrikuntzak laualdi nagusi izan dituela. Alde batetik ordenagailu pertsonalak, bestetik Internet bera, baita telefono mugikorrek eta azken sakonago aztertuko den hau, murgilketa teknologia bezala ezagunak direnak. Azken hauek nonahiko hurrengo konputazio-paradigma osatzea espero da, hezkuntza, enpresa, urrutiko lana eta aisialdia eraldatzeko potentziala edukiz (Mystakidis, 2022; Dionisio et al., 2013).

Testuinguru horretan, azken urteotan Metabersoak, denbora errealeko elkarrekintza, telepresentzia eta erabiltzaileek edukiak sortzea ahalbidetzen dituztenak dira. Zenbait adituen arabera, Edgardo López Huerta (2022)-ren arabera zehazki (MISSTECH-eko Sormeneko Zuzendari nagusia), Metabersoa oraindik kontzeptu bezala soilik existitzen da. Bestalde, elkarrizketa berean Rodo Morfin grafika sortzaileak ideia honi kontrajarriz, Metabersoaren antzinatasuna azaltzen du, aurretik aipatutako *gaming* plataformak aurkezten dituelarik (PLAYERS of Life, 2022, 12m49s).

Metaberso hitzak, "meta" aurrezkiaz (haratago) eta "bertso" atzizkiaz (unibertso) osaturik dago eta unibertsoetik at esan nahi du (Dionisio et al., 2013). Horregatik Metabersoari errealitate osteko unibertsoa deritza, errealitate fisikoa eta birtualtasun digitala uztartzen dituen erabiltzaile anitzeko ingurune iraunkorra sortuz. Ingurune birtualekin, objektu digitalekin eta pertsonekin, elkarrekintza multisentsorialak ahalbidetzen dituzten teknologien konbergentzia oinarritzen da, hala nola aurretik aurkeztutako VR eta AR (4. Irudia). Metabersoak MUVE (Multi-User Virtual Environments) izenez ere ezagutzen dira, eta MMORPG (Massive Multiplayer Online Role-Playing Games) formatutik eratorritako formatua dute, nahiz eta horiek ez bezala, bete beharreko helburu edo helbururik ez duten (Barneche Naya et al., 2012).

Zehazki, Metaberso terminoa Neal Stevenson-en Snow Crash 1992ko zientzia-fikziozko nobelan agertu zen lehen aldiz. Honetan grafiko informatikoetatik sortutako unibertso birtual paralelo bat bezala irudikatua ageri da, zeinetara mundu osoko erabiltzaileek betaurrekoen eta entzungailuen bidez konektatu daitezkeen. Erabiltzaileek Metabersoan gorputz digitalen bitartez (Avatarrak) murgiltzen dira. Nahiz eta Stevenson-en Metabersoa digitala eta sintetikoa izan, bertan sortzen diren esperientziak benetako eragina dute gizaki fisikoan (Gallastegui González, 2016).

Gaur egun, Zuckerberg eta Meta (2022)-rentzat, Metabersoa aldaketa politiko eta teknikoan proposamen bat da, Internet-ari buruz pentsatzen den moduan. Horretarako, sistema ekonomiko eta arauemaile bat behar da, espazio birtualak mugatzeko eta jabegoa sortzeko (Villasmil Espinoza, 2022). Second Life-an edo beste Interneteko espazio birtual batean egotearen eta proposatutako Metabersoaren arteko alde nagusia, bertan fisikoki sartu ezin daitekeela da. Hau da, gaur egun proposatzen den Metabersoan murgiltze oso bat lortzea espero da, benetan hor zaudela sentitzea, ia mundu errealararekin lausotuz.



4. Irudia: Metaverse technologies, principles, affordances and challenges.
Iturria: Norberak egina. (Mystakidis, 2022)-en oinarritua.

Beraz, Metabersoa sare interkonektatu bat da, erabiltzaile anitzeko plataforma iraunkorretan murgildutako ingurune sozialekin. 4. Irudian ikus daitekeen moduan, erabiltzailearen pitzadurarik gabeko komunikazioa ahalbidetzen du, denbora errealean interakzio dinamikoetan eta tresna digitaletan oinarrituz (Mystakidis, 2022). Alegia, Metabersoak, Errealitate Hedatuaren⁴ (Extended Reality –ER-) bermea du. Zehazki, hauen azterketa estereoskopikoak, sakontasunaren pertzepzioa lortzea ahalbidetzen dute. Hauek 2D sistemekin alderatuta, erabiltzaileei esperientzia handiagoak eskaintzen dizkiete. Horregatik, ER sistemek bere osotasunean, erabiltze eremu zabala sortzen dute (90 gradutik 180 gradura) eta 3D-ak zein audio espazialak mundu birtualetan murgiltzea areagotzen dutela esan ohi da (Mystakidis, 2022). Hauei Metabersoan teknologia laguntzaileak deritze, esperientzia osotasunean bizi al izateko baliagarriak baitira, hala nola Lentes Oculus-en erabilera, VR-rako betaurrekoak (PLAYERS of Life, 2022, 14m30s).

⁴ Errealitate Hedatua* (ER) beste zenbait kontzeptu multzo hartzen dituen termino orokorra da. Zehazki murgiltze teknologia laburtzen dituena; ingurune elektronikoak edota digitalak, non datuak ordezkatzaren diren, Errealitate Birtuala (VR), Errealitate Areagotua* (AR) eta Errealitate Mistoa (Mixed Reality –MR-) alegia. (MRren kontzeptua AR eta VR konbinazio gisa onartzen da) (Milgram et al., 1955, apud, Mystakidis, 2022).

Teknologia guzti hauen elkartzeak lehen aipatu ditugun mundu birtualen eboluzioan gaur egungo Metabersorako prozesuan garatutako honako ezaugarriak eskaintzen dizkio Metabersoari (Dionisio et al., 2013; Robles-Estrada et al., 2014):

- a) Metaberso baten erabiltzaileek 3 dimentsioko ingurune birtuala esploratzeko aukera dute, haiengan murgiltze maila handia sortuz→Murgiltze errealismoa.

Metabersoaren testuinguruan errealismo terminoaren erabilerak murgiltze-errealismoari egiten dio erreferentzia. Izan ere Metabersoaren errealismo helburua erabiltzaileak fisikoki zein psikologikoki harekiko konpromisoa edo *Engagement* deritzona eratzea da. Zehazki, ingurune birtual baten errealismo maila erabiltzailearen ingurunerako sarbidean, haren ekintza fisikoen eta Avatarren arteko gardentasunean oinarrituta dago. Orokorrean esan ohi da, gakoa, errealismoaren pertzepzioan gizakiak ingurunearekin elkarregiteko duen baliabideak direla. Baliabide horiek zentzumenak dira; begiradak, soinuak, ukimena, dastamena eta usaimena keinuak eta gorputz adierazpenak (Dionisio et al., 2013).

- b) Erabiltzaileei aukera ematen diete %100eko ordezkartza pertsonalizatua sortzeko, beren Avatarren ezaugarrien bidez→ Sarbidea eta Identitatea.

Metabersoan Avatar bat sortzean, xedagarrien zerrendaren artean erabiltzaile izen bat hautatu beharra dago. Jarraian, gorputz, ile-kolorea, aurpegiera, janzkera eta abar ezaugarri fisiko aukeratzeko eta Avatarrari esleitzeko aukera dago. SL-ean Klaim bezala erabiltzen zuten horri omen eginez, berriro jaiotzeko aukera eskaintzen du Metabersoak. Ez soilik itxura fisiko bat diseinatzeko aukera emanez, baizik eta izaera oso bat sortzeko ere, gustu, nahi, *hobbie*, eta abar definituz. Aipatutako testuetan oinarritutako plataforma horien eta Metabersoaren arteko desberdintasun nagusia zehazki, aldakorrak diren eta gorputz arauemaileak kontuan hartu gabe sortu daitezkeen gorputz birtual baten bidez esperimintatzea eta erlazionatzea da (Albarrán Diego, 2008).



5. Irudia.
Iturria: Norberak egina.

- c) Erabiltzaileei denbora errealean beste batzuekin elkarreragiten uzten dietenean→Elkarreragingarritasuna.

Sistema edo plataforma ezberdinetan informazioa trukatzeko edo elkarren artean elkarrekintzan aritzeko gaitasuna da. Elkarreragingarritasuna edo Interoperabilitate bezala ere ezaguna dena, adostasun mota bat ere inplikatzeko du, formalizatzen denean estandar bihurtzen dena, mundu birtualen giltza bihurtzen dena. Horrela, epe luzean giza elkarrekintza soziokulturalerako ingurugiro bat eskaintzen duten mundu birtualak sortzeko helburuarekin. Honetan, Metaberso bakar bat sortzeko asmoa aurrerapauso handi bat da. Izan ere, integrazio maila horrek mundu birtual guztiak osotasun handiago baten zati bateragarriak bihurtzen ditu. Honekin, ingurune eta mundu birtual ezberdinetik zehar oztoporik gabe erabiltzaileek haien Avaterra mugiaraztea ahalbidetuko da (Dionisio et al., 2013).

- d) Metaberso batek hedatzeko aukera anitz ditu, merkatuaren aldaketei egokitzeko ahalmena →Eskalagarritasuna.

Eskalagarritasuna teknologia arloan erabiltzen den terminoa da; sistema, sare edo prozesu baten kalitatea galdu gabe eskainitako zerbitzuan handitzeko ahalmena da (tamaina handitzeko ahalmena edota erantzun eta egokitzeko ahalmena izatea). Zuzenki lotuta dago elkarreragingarritasunarekin, izan ere bi ezaugarri hauen baturari esker, erabiltzaileek libreki nabegatu daitezke Metaberso eta azpi-metaberso ezberdinetatik ingurune eta eszena zein elkarrekintza mota ezberdinak izanik. Zehazki, eskalagarritasuna Metabersoan erabilgarritasunari erreferentzia egiten dio eta hiru azpi arlo hauetan neurtzen da;

- 1) Momentu berean elkarreragiten dauden Avatar edo erabiltzaile kopurua.
- 2) Kokaleku jakin bateko objektu-kopurua eta horien zehaztasun maila.
- 3) Metabersoak ahalbidetzen dituen erabiltzaileen arteko elkarrekintza mota ezberdin kopurua, eta hauen irismena.

Gaur egun era Metabersoan ezaugarri positiboetako bat izan arren, oraindik erronka bat suposatzen du plataforma sortzaileentzat (Wang et al., 2022; Dionisio et al., 2013).

Behin Metaberso kontzeptuan murgildu garrantzitsua da Metaberso mota ezberdinen arteko desberdintasunak antzematea bakoitzak eskain ditzakeen marketin aukerak zehazteko.

3.1.4 Metaberso motak

Mark Elliot Zuckerberg (1984), programatzaile, enpresaburu estatubatuarra eta Facebook-en eta Instagram-en sortzaileetako bat, 2021eko urrian Metaberso kontzeptua berriro abiarazi ondoren, kontzeptua nazioarteko albisteetara jauzi da. Izan ere, 2020. urtean bizitako pandemiaren ondorioz mundu guztia murgildu da hedabide digitalen erabilera masiboan. Hortaz, Metabersoak gure eguneroko bizitza eta ekonomia aldatuko dituela baieztatzen da, jolasen eta entretenimenduaren esparrutik harago, eta gizarte komunikaziorako espazio berri gisa, amaigabea izango den potentzia bilakatuz.

Existitzen diren Metaberso motei dagokionez, autoreek hauek sailkatzeko irizpide ezberdinak jarraitzen dituzte. Alde batetik, Metabersoan gaineko kontrola duenaren arabera, zentralizatuak eta deszentralizatuak daude.


Metaberso zentralizatuen artean egungo The Sims Video Games ezaguna aurki dezakegu, non erabiltzaileen aktiboak mundu birtualaren garatzaileek kontrolatzen dituzten (Tecnologia, 2021). Horrelako Metabersoetan, pertsonak elkarri eragiteko eta errealtate alternatibo bat sortzeko gaitasuna izango dute, baina, ez dute ingurune digitalaren zatiak kontrolatzeko edo edukitzeko askatasunik izango. Erabiltzaileentzako kezka nagusia, Metabersoan parte hartzen duten korporazio handiek haien inguruan bildu dezaketen informazio kantitatea da (“Metaverso, centralización vs. Descentralización”, 2022). Izan ere, Metaberso hauetan, erakunde zentralek erabiltzaileen datu guztiak eskura dituzte, eta hauek dira Metabersoaren etorkizunari buruz erabakitzen duten bakarra (Callejo, 2021b).

Modu berean, Metaberso deszentralizatuak daude, horien artean eraberritutako Minecraft eta Roblox. Hauek ekonomia sortzeko ahalmena dute eta Blockchain-ari esker nolabaiteko merkatu seguru eta erakargarria eratzen dute (Grandury González, 2022). Horrela, edozein erabiltzailek eros edo sal dezake bere jabetza birtuala. Zentralizatuak ez bezala, Metaberso hauek kontrola ematen diote komunitateari, hartzen diren erabakietan partaideek badute zer esanik (“Los metaversos y sus diferencias”, 2022) hala nola The Sandbox (2011) edo baita ere Meta Platforms (Instagram, Facebook, Whatsapp...) (Tecnologia, 2021; Callejo, 2021b)

Bestetik, Metabersoek duten ekonomiaren arabera, tradizionalak eta Blockchain Metabersoak aurki daitezke. Metaberso tradizionaletan, edo Blockchain gabeko Metabersoetan mundu birtual mota guztiei egiten die erreferentzia. Erabiltzaileek elkarrekin dezakete baina ez dago ekonomiarik. Metaberso Blockchain-etan, ekonomia bezalako alderdi asko, Blockchain teknologiak kontrola ditzake, jokalariek edo erabiltzaileek mundu birtualean kontrola izan dezaten (“Metaverso, centralización vs.

Descentralización”, 2022); Grandury González, 2022: Callejo, 2021b). Metabersoak, tradizionalak zein Blockchain-nekoak zentralizatuak edo deszentralizatuak zein aldi berean bi kategoriatakoak ere izan daitezke. Guillermo Callejok 2021. urtean sortutako grafikoan (6. Irudia) ikus daitekeenez mundu birtualak lau ardatz hauetan zehar mugitu daitezke.

Zehazki, kontrol zentralizatu dutenetan, Blockchain Metabersoan mikroordainketak kriptomonetekin* osatzen eta elementu birtualak NFT* gisa irudikatzen dira beraz, ekonomia birtual propioa dute, baina ekonomia horren kontrola antolatzaile gutxi batzuen esku dago (Callejo, 2021b). Aitzitik, tradizioaletan erabiltzaileek ezin dute ekonomian eragin eta hala ere hauek deszentralizatuak izan arren ere garatzaileek dute boterea. Azkenik, Metaberso Blockchain deszentralizatuak daude. Metaberso horiek DAO* (Erakunde Autonomo deszentralizatu) baten bidez funtzionatzen dute, eta ekonomia birtual erabat autonomoa dute, erabiltzaileek kontrolatua. Hauek ziurrenik, etorkizunean potentzial handiena duena. Izan ere, gaur egun Metaberso horiek garapenaren oso fase goiztiarrean dauden arren, dagoeneko enpresa askoren arreta erakarri dute (Grandury González, 2022; Villasmil Espinoza, 2022).



6. Irudia: Metabersoak sailkatzen.
Iturria: Norberak egina. (Callejo, 2021)-en sailkapenean oinarrituta.

Aitzitik, beste aditu batzuek (Kye et al., 2021 eta Metaversosenead, 2017) Metabersoak sailkatzeko beste bi ardatz erabiltzen dituzte. Lehenengo ardatzak, erabiltzen den teknologia adierazten du, simulazioa edo areagotua. Bigarrenak, Metabersoaren ikuspegia islatzen du, erabiltzailearen identitatearen ikuspegitik hasi (barnekoa) eta munduko (kanpoko) ikuspegiraino iristen da (Metaversosenead, 2017).

Simulazio teknologiak errealitatea moldatuz ingurune berdingabe bat sortzen dutenak dira. Teknologia areagotuak ordea, jadanik errealak den sistema bati funtzio berriak gehitzean datza. Identitate intimoa edo barne mundua, gizabanako edo objektu baten identitatean eta portaeran zentratzen da eta Metaberso barneko munduaren osaketarako teknologia erabiltzen da. Erabiltzaileek

Avatar bat erabiltzen dute edo sisteman, zuzenean jokatzeko. Haatik, kanpokoak, inguruko munduan oinarritzen dira. Parametro horien arabera, lau Metaverso mota definitzen dira (7. Irudia) (Kye et al., 2021) :



7. Irudia: Lau Metaverso mota ezberdinak. Iturri: Norberak egina. (Kye et al., 2021)-en oinarritua.

-Errealitate Areagotuako Metaversoak:

Ingurumen adimenduna da, lokalizazioan eta sareetan oinarritutako teknologiak erabiliz. Tresna horiek kanpoko mundu fisikoa hedatuko lukete, gizabanakoa jakitun den geolokalizazio sistemak eta interfazeak erabiliz. Interfaze horiek sareko informazioa gure eguneroko pertzepzioaren gainetik dagoen geruza batean prozesatzen eta kokatzen dute. Esate baterako, Pokemon go (2016).

-Ispilu Mundu Metaversoak:

Eredu birtual horiek, mundu erreala den bezala islatzen du, baina kanpoko ingurumen-informazioa integratzen eta hornitzen du. Oro har, mapak eta geolokalizazio sentsoak, GPS, izan ohi dituzte. Horrelako Metaversoen adibide gisa; Google Earth (2001).

-Errealitate Birtualeko Metaversoak:

Datu digitalen bitartez sortutako mundu birtuala da. Erabiltzaileak haien identitatea islatzen duen Avatar baten bitartez elkarrekin dezanete, errealitate horren barruan presentzia izatea ahalbidetuz. Second Life kasu.

-Lifelogging Metabersoak:

Gizabanakoen zein objektuen egunerokotasunaren informazioa eta esperientziak biltzeko eta partekatzeko teknologiak dira. Gaur egun eguneroko bizitza interneten partekatzeko gailu azkarrak erabiltzeko sare sozialak; Instagram, Facebook bezala (Sánchez-Mendiola, 2022; Kye et al., 2021; Metaversosenead, 2017).

Aipatu bezala, eskainitako informazioa egun Metaberso kontsideratzen diren mundu birtualetan oinarrituta dago. Hala ere, espero den etorkizuneko Metabersoak izango duen izaera ezagutzea zaila da. Mark Zuckerberg-ek proposatutako Metabersoari itxaron beharko da, aurretik aipatutako bideo-jokoetan ez bezala mundu paralelo baten oinarrituko baita eta bizitza errealaren antzera inoiz ez baita bukatuko.

Aurreko ataletan azaldutako ezaugarriak eta Metaberso mota ezberdin ugariak marketinean eragina dute eta izango dute.

3.2 **Marketinaren kutsua Metabersoan**

Esan bezala, Metabersoaren barruan garatutako ekintzek eragina izan dezakete eguneroko errealitatean. Batzuetan errealitate arruntaren eta Metabersoaren errealitatearen arteko muga erabat lausotu daitekeela badirudi ere, Metabersoan eta errealitate arruntaren arteko aldea funtsezkoa da. Mundu birtualen ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, errealitatearekiko nahiko isolatua izatea da, nahiz eta erreala denaren sententzia sortu behar. Horregatik, mundu birtualen garapena eta hauen edozein aldaera (bideo-joko sinpleenetik, tope egiteko toki, edota mundu errealaren simulazioetaraino) enpresentzat erreminta erakargarrietarikoak dira, Interneteko joera berriak eta baita ekonomia birtual berri honen barneak arakatu ahal izateko (San Millán et al., 2008).


Metabersoak edo mundu sozial birtualak Social Media deituriko aplikazio multzo handi baten parte dira. Haien artean hain ezagunak diren, YouTube, Instagram edo TikTok bezalako sare sozialak, Wikipedia eta Metabersoak bezalako lankidetzak proiektuak zein Second Life bezalako mundu birtual sozialak aurki daitezke (Robles-Estrada et al., 2014).

Lehen azaldu den bezala, gizartearen beharrak eta gustuak aldatzen ari dira, kontsumitzaileek dagoeneko ez dute produktu bat erosten soilik honek eskaintzen dituen onura eta funtzionaltasunagatik, baizik eta merkatuaren eskaintza osoa kontuan hartuta. Erabakia hartzeko, inguruan duten esperientzia osoan oinarritu egiten dira, esperientzia hori txarra, ona, laburra edo luzea izan daiteke eta aipatutako aplikazio sozialek eskaintza ezagutzeko eta baita enpresak nolabait

“santzionatzeko” ahalmen handiagoa eskaintzen dute. Bertan, kontsumitzaileek izandako esperientziak eta jasotako pertzepzioa partekatu ditzaketelako (Kotler et al., 2021).

Adituak honetaz oharturik, Metabersoan inbertitzen hasi dira. Microsoft adibide gisa, Metabersoa garatzeko teknologietan inbertitzen ari da, bere Teams bideo deiak egiteko aplikazioetan Avatarrak, kreaio grafikoak, barneratzen (Mercadotecnia Total, 2022, 34m01s). Horrez gain, Mark Elliot Zuckerberg (1984), jadanik haren sare sozialaren izaera eta baita izena aldatu izan du, orain Meta platforms bezala izendatuz. Haren ustean Metabersoa guztiz egituraturik egoteko 15 urte falta dira oraindik, baina hala ere bere aukera ugariak ikusirik honetan ikertzea eta inbertitzea beharrezkoa ikusten du, “Metabersoa Internet berria izango baita” (BBC News Mundo, 2021).

2022ko otsailean, Facebook eta Instagram-eko CEO-ak bere sare sozialetan azaldu duen bezala, hauetan ere Avatarraren erabilera sustatuko da, erabiltzaileek haien identitate birtual propioa argitalpenetan partekatzea ahalbidetuz (Noticias Metaverso, 2022). 8. Irudian ikusten den bezala hauek dira Instagram-ean 2022. urtean barneratutako Avatar berriak. Humberto Barreren (CEO Growth Hocking Mexico) esanetan laster Facebook-en gertatzen diren interakzioak Metabersora lekualdatuko dira (Mercadotecnia Total, 2022, 34m27s).



8. Irudia: Instagram-eko Avatarrak.
Iturria: Norberaren Instagram profila.

Horrela, SL-an ikusi bezala, Metabersoak haren ezaugarri bereziagandik (murgiltze errealismoa, sarbidea eta identitatea, elkarreragingarritasuna eta eskalagarritasuna), E-Commerce-rako eta E-Busines-rako aukera ugari eskaintzen ditu.

3.2.1 Metabersoak marketin arloan eskaintzen dituen aukerak

IKT-ek eta zehazki Metabersoek, Marketin Mixean duten eraginak ohiko 4P ereduaren baliozkotasunari buruzko eztabaida pizten du. Zehazki, Kalyanam eta McIntyre (2002)-ren ustean sareetako truke-harreman eta elkarreragin digitalen paradigmak marrartzuz, E-Marketin Mix-a proposatzen dute, non honako funtzio hauek identifikatzen diren; pertsonalizazioa eta esperientzia segmentazioaren alor bezala, baita pribatutasuna, bezeroarentzako zerbitzua, gunea, segurtasuna, komunitatea eta salmenten (Aguilar-Ruiz eta Robles-Estrada, 2014).

Mark Zuckerberg-ek planteatutako Metabersoan erabiltzaileak bizi eta elkarreragitea, marketina guztiz eraldatzea eta NFT-tan oinarritutako ekonomia izatea espero da (Negocios De Éxito, 2022; La Vanguardia, 2021,). Hala ere, Humberto Barrera (2022)-ren (Growth Hocking Mexico-ko CEO-a) aburuz oraindik ez dago egi zehatzik, Metabersoak garapen bidean baitaude eta aurrerapauso bakoitzarekin aldaketak sortzen direlako. Horregatik “Proto-metaberso”-etan oinarritzen da informazio osoa, Metabersoa izango dena imajinatuz, ondorioz lanean proposatutako aukerak, aldaketak zein ideiak guztiz eraldatzea gerta daiteke (Mercadotecnia Total, 2022, 49m10s).

Helburu den publikoari dagokionez, zenbait adituen ustean, mundu birtualetan oraindik erabiltzaileen gehiengoa Alpha jeneraziokoa da. Hauei belaunaldi digitala, multi-pantaila eta *streaming* jenerazioa era deritze. Gainera, berehalako izaera duten ekintzak bilatzen dituztela esan daiteke. Millennial-ak edo Z belaunaldiak digitalak izan arren, ez dute aurrekoen teknologia gaitasun bera (Kotler et al., 2021).

Metabersoa oso futurista irudi zezakeen arren errealitate bat da. Berez, Metabersoan jolastea, sozializatzea, lan egitea... posible da, honetaz baliatuz esperientzia eta bizipen sentrazioak lantzea posible izanik, marketinarentzat oso garrantzitsua dena (Mercadotecnia Total, 2022, 24m07s).

Ohiko Marketin Mix-eko 4P-etan Metabersoak eskaintzen dituen zenbait aukera aipatu arren ez dago nola jakinik benetan zein eragin izango duen, oraindik ez baitago guztiz zehazturik mundu digitalaren algoritmoa zein eta nola izango den. Hala ere, Felix Costers (2022)-en ustean gizakiaren jokabidea mundu birtuala mugitzen duen *insight*-a izango da (Mercadotecnia Total, 2022, 36m39s). Eta haren aburuz, Metabersoak enpresei produktu digitalak, heziketa, publizitatea eta abar eskaintzeko aukera eskaintzeaz gain garrantzitsuena, Metabersoan esperientzia berritzaileak sortzeko ahalmenaz baliatzea da, gizartea bere errealitatearekin aseturik ez baitago. Modu honetan, enpresari gisa, errealitatean zenbait ekintza edo esperientzia bizitzeko aukerarik ez dutenei hauek eskaintzea izango litzateke helburua (Mercadotecnia Total, 2022, 21m03s). Hain zuzen ere, mundu errealeko ekintzekin paraleloak diren marketin-esperientziak sortzea da gakoa.

Aipatu izan den bezala, marketin tradizionalak edo Marketin 1.0-ak, bideora edo irudi estatikoetara joko luke, teknologia berriarekin ordea, marketina unibertso berri batera iritsi da, Marketin 5.0-a sortuz. Modu honetan, nahiz eta Metabersoan publizitate birtuala ere eskaini daitekeen, haratago joatea posible da. Hauek esperientziazkoak eta murgiltzekoak direla kontuan hartuz, marketineko iragarkietatik eta ekimenetatik hasita esperientzia oso bat eskaini behar da (Otegui Castillo, 2017).

Marka esperientzia garatzeari dagokionez, lehenik eta behin aipatu beharrekoa da, Metabersoaren alde egiten duten enpresek jadanik haien marka lantzen ari direla. Honekiko joera erakutsiz, berritzailea den marka irudia lortuz. Halaber, Metabersoetan murgiltzen diren enpresak haien marka

irudia garatzeaz gain Metabersoaren errealitatea lantzen ari dira (PLAYERS of Life, 2022, 19m39s). Metabersoan sortutako marka-esperientziek, Social Media-ko beste aplikazio batzuetan sor daitezkeenekin alderatuta duten murgiltze, denbora errealeko elkarreragin, pertsonalizazio eta 3D inguruneen eskuragarritasun ezaugarriek esker kontsumitzailearengan eragin handiagoa dute (Otegui Castillo, 2017).

Iraganean kontsumitzaileei esperientzia eta estimulak emateak baliabide fisiko, zein ekonomiko handien beharra zuten. Metabersoan garaian, enpresak erabiltzaileekin lerrotatuta egon daitezke, hauek eskaintzen dituzten 3D edo murgiltze errealismo ezaugarriak gizakien 5 zentzumenak ustiatzeko baliagarriak baitira markaren esperientzian eta erosteko asmoan eraginez. Modu honetan, Metabersoek marka esperientzia sustatzeko, gizabanakoaren erosketaren prozesu osoan jasotako esperientzia lau alorretan banatu beharra dago (Otegui Castillo, 2017): produktu, prezio, banaketa eta komunikazioa. Horrela, marka esperientziak sustatzeko enpresek izan ditzaketen aukerak 4P-en araberakoak dira.

a) Produktu politikan aukerak esperientziak sortarazteko:

-Produktu Fisikoak:

Enpresek ondasun edo zerbitzu fisikoak eskain ditzakete joera berriak kontuan izanik, izan ere Metabersoek duten eskalagarritasuna dela eta, haien moda eta Avatar komunitate arau propioak sortuko dituela uste da. Markek produktu-esperientzia positiboak eta biziak sor dezakete produktuen aurkezpen birtualaren bidez. Esan bezala, Metabersoan 3D-ko giro birtualak sortzea, manipulatzeko eta erabiltzeko, zein denbora errealean kontsumitzailearen eta produktuaren arteko elkarreraginak sortzea ahalbidetzen da. Orobat, elkarreragingarritasunaz baliatuz, produktu fisikoak diseina ditzakete kontsumitzaile potentzialen laguntzarekin, produktu-probak *target* zehatz batekin eginez, edota mostradore birtualak era ditzakete non beren produktuei usaina edo ehundura eman ahal dizkieten. Modu honetan Avatarrei esker erabiltzaileek publizitate tradizionalan baino modu zuzenagoan esperimendu dezakete (García Pérez et al., 2014).

-Produktu Birtualak:

Markek ondasun errealean erreplika sortarazi ditzakete birtualki. Esate baterako, Errealitate Birtualaz baliatuz NFT produktu digitalak sortzera animatzea. Erabiltzaileen Avatarrengan pentsatuz, norberak haren skin-a sortzeko eskaintza ezberdinak emanik beren identitatea sortu ahal izateko. Baita Metabersoetan enpresa berri bat sortu ere, objektu grafikoak soilik saltzen dituenak.

-Produktu Hibridoak:

Enpresek aurreko bi puntuen konbinazioa egin dezakete, osagarriak diren produktu birtual eta fisikoak sortuz alegia. Bestetik, haien produktuak murgiltze teknologiarekin ere konbina ditzakete. Demagun, kirola egiteko arropa saltzen dituen dendak Metabersoetan murgiltzeko teknologiak ere eskaini ditzake. Modu honetan, kontsumitzaileak Kirol App bati esker eta VR betaurrekoen erabilerarekin Metabersoan kirola egiteko aukera izango lukete (PLAYERS of Life, 2022, 25m40s). Zerbitzuen kasuan, marka batek bere zerbitzuak eskaini ditzake Metabersoan erabiltzeko, kontsumitzaile batek mundu errealean kontratatutakoaren osagarri gisa; adibidez, Covid-19 dela eta oso famatu egin ziren online-klaseak, Teams bezalako plataformetan egin beharrez, klase guztia bere Avatarrarekin gela birtual baten egon daiteke, klase hauen balioa mundu errealean kontuan hartuz.

b) Prezio politikan aukerak esperientziak sortarazteko:

Produktu digitalen ekoizpena eta ondorioz kostua erreala baino txikiagoa izatea espero da, merkaturatze-kostuak merkeagoak direnez, prezio lehiakor horiek eskaintzea ahalbidetuz. Erabiltzaileen bi munduak bateratzeko helburuarekin mundu errealeko denda fisikoetan produktu edo zerbitzuak haien anai birtualekin bat sustatzea gerta daiteke. Banaka erosi beharrean produktu hibridoa prezio baxuago batean eskaintzea, kontsumitzaileak mundu errealean eta bere Avatarra Metabersoan berdina egin eta izan dezaten, haien sarbidea sustatuz eta identitatea sortzea erraztuz.

Modu berean, ekonomia sintetikoa sortzea espero da, Metabersoa bere moneta propioa izanik eta parte-hartzaileek honekin zein mundu errealeko monetarekin erosiz, baina oraindik kanbio-tasa ezagutzea ezinezkoa da. Horregatik zaila da jakitea enpresek zein nolako prezio politika ezarri zezaketen.

c) Banaketa politikan aukerak erosketak eta zerbitzu esperientziak sortarazteko:

Alde batetik, markek E-Commerce-a E-Business-gatik ordezkatu dezakete. Bestera esanda, online erosketak plataforma denda birtual oso batengatik alda dezakete. Establezimenduz gain beharrezko langileak, objektuak, produktuak eta abar erabiliz. Horrela, Metabersoak murgiltze errealismoari esker markek, kontsumitzaile baten Avatarrak dendara erosketak erreala egitera joatea lor dezakete, produktu fisikoaren ezaugarriak eta xehetasunak kalitate hobez antzemanaz eta ez soilik produktuekin, dendako ingurune fisiko eta espazialarekin ere elkarrengaitzatzea. Edonola ere, mundu birtual hauek hitzartutako elkarrengaitzatasuna eskainiz gero, markek, aipatutako dendariak gehituz, bezeroarentzako arreta-ekipoak sortu ditzakete, zeintzuek kontsumitzailearekin harreman zuzena

izango duten, haien zalantzak eta kezak argitzeko aukera ahalbidetuz. Horrek produktu erreal edo birtual baten arazoak konpontzeko aukera izatea ere badakar (García Pérez eta Robles-Estrada, 2014).

Metaberso eta hau inguratzen duten teknologiei esker, hauen eragina mundu errealean identifikatu daiteke, hain zuzen ere, gizabanakoek ispilu adimendunen bitartez eta esfortzu fisikorik egin gabe dendetako arropa haiengan nola geratuko litzatekeen esperimentatu dezakete. Alderantziz ere, Metabersoak Avatarrei, esate baterako, arropa bat edo zapata batzuk probatzeko aukera emango die, benetako bizitzan nola geratuko zaizkien jakiteko (Mercadotecnia Total, 2022, 39m16s). Honekin batera, erosleek Internet bidez bakarrik saltzen diren produktu eskusiboak erosteko eta epe laburrean etxean jasotzeko aukera izan dezakete. Gainera, bezeroak eguneko edozein unetan erosteko aukera izan dezakete. Honek, muga geografikorik ez izatea eta mundu osoko edozein tokiko bezeroengana iristea ahalbidetzen du (Otegui Castillo, 2017).

d) Komunikazio politikan aukerak esperientziak sortarazteko:

Etorkizuneko Metabersoak komunikaziorako aukera ugari eskainiko dituela argi dago. Second Life-ean edo The Sims Video Games-ean (2000. urtean Will Wright-ek sortutako simulazio sozialeko eta estrategiako bideo-jokoa) albistaritza ekintzak aurrera eramane ziren, bideo-jokoen barnean egunkari birtualak sortuz eta barruan gertatzen zenari buruz informatuz. Alegia, CNN-ak ere mundu birtual hauen barruan enpresak sortu zituten. Metabersoan banakoaren markaren komunikazioak indar handia hartu du. Gaur egun, Fortnite bideo-jokoaren (2017) barnean Travis Scott edo Ariana Grande bezalako abeslariak, ekintzak eratu izan dituzte. Avatarren bitartez dantza ere egiteko aukera egonik. Ekintza hauek enpresek publiko gazteago baten artean erreferentzia lortzeko egin ohi dituzte.

Baita ere estatubatuar elkarrizketa sail famatuen formatua mundu birtualera eramane izan dutenak badaude, hala nola Jimmy Fallon-en Tonight Show-a. Honek Paris Hilton-i egin zion elkarrizketa famatua bakoitzaren Bored Ape tokensak* erabiliz animatu zen (NFT Valor, 2022).



9. Irudia: Tonight Show-eko elkarrizketa.
Iturria: (NFT Valor, 2022).

Beste aukera, Metabersoek duten elkarreragingarritasunaz eta eskalagarritasunaz baliatuz hitzaldi birtualak eskaintzea da, produktu edo zerbitzu jakin bati buruzkoak. Identitate ezberdina duten bezero potentzialei produktuak erakusteko eta hauek erabili ahal izateko jarraibideak eskaintzeko erabilgarri

dira. Azkenik, gaur egun, Marketin 5.0-aren barnean, gizarte komunikazio korporatiboak indar handia duenez gero, badago ere Metabersoetan etikoak eta jasangarriak diren ekintza zein produktuak. Bertan lortzen denak eragina badu ere mundu errealean, esate baterako, jaki bilketa kanpaina bat egitea (Mercadotecnia Total, 2022, 30m45s).

4 Kasu Praktikoa: Metabersoan murgilduta dauden bi marken kasu praktikoa

Esan bezala, Mark Zuckerberg-ek Facebook Metabersoaren aro berri batera eramateko ideia iragarri zuenetik, kontzeptu hori ekonomia digitalean zehar hedatu da. Metabersoan etorrerak edo hauen proposamena, marka askoren arreta erakarri du, plataforma birtual horietan publiko ezberdin eta ondo segmentatu bateri zuzendutako merkataritza komunikazio-estrategiak sortzeko espazio berri bat ikusi baitute (Negocios De Éxito, 2022). Eran berean, kripto ekonomiaren ekosistemak ere negozio-aukera bat ikusi du ideia horretan. Horrela, NTF-en joko eta proposamen berriak sortu dira, bakoitzak beren Metabersoak proposatuz eta zehazki Interneten etorkizunaren ideia horren eragina hain izan da handia, non modaren esparruan leku bat izatera iritsi den.

Illo honetatik abiatuta, modaren esparruko bi nazioarteko marken kasu praktikoetan sakontzea erabaki da: Zara eta Adidas.

4.1 Zara

Zarak, Inditex taldeko Espainiar moda kateak, Hego Koreako Ader Error markarekin bilduma eksklusibo eta berritzaile bat garatu du egindako lankidetzaz-hitzarmen baten bidez. Lankidetzaz-proiektu honek AZ Collection du izena. Bilduma hori 10 herrialde ezberdinetan 2021eko abenduan jarri zen salgai bai online bai denda fisikoetan, eta mundu birtualera ere zabalduko zen, Zepeto Metabersoan Zarak duen presentziari esker (Veliz, 2021).

Zepeto (2018), Zarak bere lehen jantzi birtualen bilduma kaleratzeko aukeratutako Metabersoa da. 2021. urtean 2 milioi erabiltzaile baino gehiagorekin, azken urtean azkarren hazi den Metabersoetako bat da. Erabiltzaileek oso erraz sor dezakete beren Avatar digitala. Beren aurpegiko argazki bat eskaneatu besterik ez dute egin behar, eta mundu osoko milioika erabiltzaileekin birtualki elkarreragiten has daitezke (Metabersoan elkarreragingarritasun ezaugarria aprobetxatuz). Zepeto Metabersoari esker, plataformako moneta bera erabiliz eros daitezke artikulu digitalak. Zepetoren ezaugarri nagusietako bat bere segmentuaren zehaztasuna da, berez plataformaren erabiltzaileen % 70 13 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira (Callejo, 2021a).

Esan liteke Zepeto Metabersoa Avatarrez osatutako Instagram bat bezalakoa dela (Metaberso Lifelogging, zentralizatu eta tradizional gisa defini daiteke). Non erabiltzaileek beren artean elkarreragiten duten, bakoitzaren ezaugarri fisikoetan oinarrituta eraikitako pertsonaia birtualen bidez, baina benetako nortasuna gordez (Metabersoen duten identitatea ezaugarria aprobetxatuz). Zehazki, Zepetoren faktorerik garrantzitsuenak Avatar bakoitzaren pertsonalizazio-gaitasuna izanik (Andro4all, 2021). Gaitasun horrek erakartzen ditu gero eta enpresa gehiago mundu birtual, sare sozial, bideo-joko, Avatar sortzaile...honetara.

Metabersoen, AZ Collection bildumako jantziek denda fisikoen prezio berberak zituzten. Jaka batek 239 euro inguruko prezio izanik. Konpainiak azaldu zuenez, bilduma berriko jantziek mundu erreal eta birtualean bizi diren pertsonen hainbat bizimodu eta esperientzia islatzen zituzten. Zarak bere Twitter kontuan azpimarratu zuen bezala (10. Irudia), bere diseinu berriek kontsumitzaileei haien izaera zein identitatea bi munduetan garatzeko bideratuta daude (Callejo, 2021a)



10. Irudia: Ader Error x ZARA AZ collection.
Iturria: (Zara España, 2021).

AZ Collection bilduma Metabersoen salgai jartzea bat dator uneko hazkunde digitalaren joerekin, non enpresa gehienek beren posizioa egonkortu nahi duten ekosistema berri eta azeleratu honetan. Modak dakarren adierazpen-gaitasuna birdefinitzeko asmoarekin sortu zen bilduma hau zehazki, garai berri batera egokitzeko. Izan ere, Ader Errorrek adierazi zuenez, bilduma honen asmoetako bat filosofia eta kultura berri bat sortzea da, belaunaldi berriei erabiltzen diren espazioetan egokiago adierazteko aukera emango diona (Veliz, 2021).

Aipatu den bezala, mundu birtualen eta teknologien kontsumitzaile handienak gazteak dira, zehazki Alpha, Millennial eta Z belaunaldia. Zarak osatutako arropa eta osagarri bilduma zehazki hauengan pentsatuz kaleratu zen. Ikus dezakegunez, bildumaK *oversized* estiloa jarraitzen zuen. Hau berokiak, jakak zein zapatilak, frakak, bufandak, txanoak eta *outfit*-ak osatzeko betaurrekoak ere barneratzen zituen (Veliz, 2021).

2022. urteko maiatzean Zarak bere bigarren bilduma digitala aurkeztu egin du (11. Irudia). LIME Glam izenpean (<https://www.zara.com/es/es/trf-l880.html>). Bilduma hori (aurrekoa ez bezala) bakarka kaleratu du, eta Zepeto Metabersoan egoteaz gain (aurrekoan egin zuen bezala) offline bizitzan (bizitza fisikoan; edo errealean) eramateko pentsatuta dago. Arropak, osagarriak eta makillajea ditu eta esperientzia guztia hobetzeko, Metabersoan eskalagarritasunaz baliatuz, hiru elementu digitalekin aurkezten dira, horma, zoru eta fotomatoi bat (Hernandez, 2022).



11. Irudia: Lime Glam Metacollection Spring-Summer 2022.
Iturria: <https://www.zara.com/es/es/trf-l880.html>

Komunikazio ikuspuntutik, "Nire beste Nia beste unibertso batean" esanez iragartzen da, izan nahi dugunarengan eraldatzeko gonbitea egite duen bitartean. Zararen hitzetan, proiektu honek pentsatzeko modu berri bat islatzen du, berez, mugak luzatu eta bere identitatea eta nortasun paregabeak besarkatu nahi dituen komunitate batena (Hernández, 2022).

LIME Glam honetan, 9 elementuko bilduma, Denim ehunaz egindako produktuak (batez ere arropa bakeroak direnak) arrakastatsuenak dira: praka laburrak, jakak, *tie-dye* efektua duten praka luzeak eta baita alboko *cut out*-ak dituen jantzi *cowboy* bat (12. Irudia). Orobat, lima koloredun soineko distiratsu bat badago ere. Gutxi balitz, kamiseta distiratsu bat, fuchsia koloreko sandaliak, kolore bereko poltsa txirikordatuak... ere auki daitezke 20 eta 40 euro arteko prezioekin. Kosmetikako produktuen artean, azazkaletako esmaltea dago, 5,95 euroko prezioarekin (Zara, 2022; Hernández, 2022; Martínez, 2022).



12. Irudia: Lime Glam Metacollection Spring-Summer 2022.
Iturria: <https://www.zara.com/es/es/trf-l880.html>

Beraz, pertsonak ingurune birtualera aldatzen ari direnez, modaren industriak ere eboluzionatu behar du kontsumitzaileen behar berrietara egokitzeko. Honen adibide Zara dugu, zeina 6 hilabeteko epean (2021eko abenduan AZ Collection eta 2022ko maiatzean LIME Glam), bi bilduma ezberdin atera ditu Metabersoan, Zepeto Metabersoan zehazki.

Bilduma hauetan, Metabersoek duten eskalagarritasuna erabiliz, produktu digital eta fisikoak zein produktu hibridoak sortu ditu eta baita erabiltzaile gehiagotan zirrarak ere. Markaren komunikazioa sustatzeko bilduma berriak gizabanakoaren identitatea sortzeko edo eraldatzeko helburua dutela diote, Zarak baitaki Metabersoek bereizgarri handienetakoa identitatearen sorkuntza dela. Banakuntzaren ikuspuntutik, MR sistemek bere osotasunean eta 3D-ak zein audio espazialak mundu birtualetan eskaintzen duten murgiltze errealismoa dela eta, zehaztasun grafiko handiko produktuen erakusketa eta denda birtual zein fisikoen erabilera eginez erosketa eta zerbitzu esperientzia ezin hobek eskain ditzake Zarak. Azkenik argi dago mundu fisikoan; edo errealean, arrakasta handia duen moda enpresa honek Metabersoek elkarrengarritasuna kontuan duela, izan ere Social Media aplikazio guztiak lantzen dituzte marka irudia eta Zara zale are gehiago sortzeko.

4.2 [Adidas](#)

Adidas Blockchain teknologia duen marka baten eraldaketaren adibide onenetako bat izan daiteke. Izan ere, Metabersoan sartu zen, NFTak arakatzuz eta Coinbase kriptomoneta-etxearekin* harremanetan jarriz. Berez, arropa eta kirol artikuluen moda birtuala gidatzeko prest dago. Gainera, bere arerio nagusienetako batekin lehiatzen da mundu birtualetan, Nike, zeinek 2021eko azaroan Nikeland aurkeztu zuen Roblox jokoen plataforman, horri esker, erabiltzaileek ariketa fisikoa egin dezakete hainbat jokoren bidez, baita beren Avatarrak marka estatubatuar ezagunaren jantzi eta zapatilekin jantzi ere (Maldonado, 2021).

Metabersoan debuta egiteko, Adidas NFT proiektu handiekin elkartu zen. Hots, Adidasek [Bored Ape Yacht Club \(BAYC\)](#) *, [Gmoney](#) eta [Punks Comic](#) enpresen eskutik, Metabersorako urratsa eman zuen 2021eko abenduan Into the Metaverse izeneko 30.000 NFTko bilduma bat kaleratuz. Edizio mugatukoa den NFT bilduma arropa fisiko eta birtualez osatua dago.

Birtualari dagokionez, prezioa 0,2ETH*zen bere sorreran (678 euro inguru). Unitate bat erosiz gero, 2022an eskuragarri egongo den arropa fisiko eskusiboaren bilduma eskuratu ahal izango da, bai eta enpresak kaleratuko dituen produktu, ekitaldi eta komunitate birtualerako sarbidea ere (Gómez, 2021).

Komunikazioari dagokionez, Adidas bilduma hori ezagutzera emateko digitalak eta fisikoak diren komikiak atera ditu (13. Irudia). Bestalde, Adidasek, aipatutako Bored Ape Yacht Club, Gmoney eta Punks Comic-en plataformetan, bere Avatarrak erakusten ditu bere lurralde birtualetan eta baita sare sozialetan beti ere enpresaren logoa duten jantziak jarrita izanik. Baita NFT proiektu hauen sare sozial ofizialak, euren Avatarren irudiak Adidas jantziekin partekatzen hasi ziren (14 irudia).



13. Irudia: Adidas-en Into the Metaverse bilduma komiki digital zein fisikoetan. Iturria: (McDowell, eta Chitrakorn, 2021).



14. Irudia: Adidas x BAYC. Iturria: <https://www.adidas.es/search?q=next&oldq=nft>

Guzti hau kontuan izanik, moda birtuala Adidasen hurrengo negozio handia dela iradokitzen da. Hau aipatuta, esan beharra dago orain bertan, haien webgune ofizialean aipatzen duten bezala, NFT bilduma osoa agorturik dagoela.

Bestalde, eta modatik at, Adidasek The Sandbox jokoan (2011) Metabersoan lursail birtual bat ere badu, zeinen aurkezpena egin zuten Twitterreko bere kontuan argitaratutako argitalpen baten bidez.

2011n sortu zen The Sandbox, baina 2018an inguru tradizional batetik Blockchain deszentralizatu batera igaro zen. Gaur egun ere, proben etapan jarraitzen du, abenduan bere lehen denboraldian 18 esperientzia kriptotxanponen 5.000 zaleei aurkeztuz, baita beste 200.000 jokalariri sarrera mugatua emanaz (Kailai Han, 2022).

Zarak ez bezala Adidasek ez dio hainbeste garrantzia ematen identitatearen sorkuntzari haren komunikazioan. Baina honek produktu hibridoek sustapenak barneratzen ditu, hau da, produktu birtual bat erosiz produktu fisiko eskusiboak eskuratzeko aukera ematen du. Murgiltze errealismoari eta grafikoek zehaztasunari esker, Adidasek bere bildumaren aurkezpen ikaragarria egitea lortu du, gainera banaketari dagokionez, mundu fisiko zein birtualen artean sinergiak eginez, bere lurralde birtualetan eskaintako produktuak errealean eros daitezke eta alderantziz horrela bezeroaren mundu birtualerako sarbidea erabat erraztuz. Halaber, NFT-etan adituak eta famatuak diren enpresekin kolaboratuz Metabersoek duten elkarreragingarritasunari eta baita ere eskalagarritasunari esker komunitate bat sortu dute, sare sozial, ingurune birtual zein fisiko ezberdinak konbinatuz.

5 Etorkizunerako ikuspegia

Internetek negozioen mundurako eskaintzen dituen aukeren artean, Metaberso markek kontsumitzaileekin duten elkarreragina errotik aldatuko dituen fenomeno bihurtzen ari da. Garai honetan, hauek marketin-estrategia eta negozio-plataforma gisa duten potentziala ezin hobeto uztartzen da, behintzat kontsumitzaileek abiadura handiko Interneteko konexioak eskuratzeko aukera badute.

Esan bezala, merkatuen globalizazioa, teknologiaren aurrerapen bizkorra zein komunikabideen saturazioa dela eta Marketin 1.0-aren zenbait ekintza zaharkituta geratu izan dira, honek kontsumitzaile guztiak homogeneousat hartzen baititu, hauen zer esanak kontuan hartu barik. Gaur egun, kontsumitzaileek ez dute marka bat erosten soilik produktuen ezaugarriari erreparatuz, aitzitik, merkatuaren baldintzak eta eskaintza gero eta handiagoa direnez kontsumitzaileek esperientzian oinarrituta hartzen dituzte erosteko erabakiak. Horregatik ikusi bezala, bost etapako eboluzioa jasan du marketinak, gaur egun Marketin 5.0-ra edo Gizakiak imitatzen duten teknologien bidezko balio marketinera helduz. Testuinguru honetan, Metabersoak marketin tresna gisa erabiltzeak aukera ematen die enpresei oso ekintza puntualak barneratzeko, baita merkataritza-onura izango dituzten marka-esperientziak sortzeko.

